

Ardoaren indarra

Euzko Gaztedi, 12. zk., 1949-05: 20-21.

Peri eguna ERNANI'n: osteguna.

Baserritarren sakeletan diru mordoak: lokarriarekin lotuta, sudur-zapiaren muturrean korapilatuta, nola nai, bañan ondo gordeak. Eta baserritarra non nai: Sarasua'ren ardandegian, Asteasu edo Adarraga'ren sagardotegian, pelota jokuan, merkatun...

ERNANI'ko peri eguna ez da nolanaikoa izaten!...

Pardel asko besazpietan; sega, itai, uztarri, segapoto, era guzietako jantziak mai gañeetan zabaldua. Majiña bat belarrimtz bai: "caramelos", ¡"barquillero"!... otz-egiten.....

Txapela non nai: txiki, aundi, geienak zabal eta eokiak. Ta bruxa ederrik bai soiñean baserritarrak: duan jantzirik onena perirako.

PLAZA BERRI'n egiten da peria. Alde batean, burnizko taket ilarra bietan lokarriarekin erantzita: bei, txekor, idi, sesen, biga, asto, bior, mando... Oker da zuzen, gizen da argal, mamitzu ta esurtzu, txuri, beltz, txuri-beltz, gorri, txuri-gorri...

Bestean txerriak, bañan era guzietako txerriak, beren egurrezko kioletan txukun lazto gorri ederraren gañean etzanda. Batean serrama bere sei edo amar txerritxo jostailueri jaramon aundirik egin gabe; bestean amaika arroako serri bakarra; emen bakoitzat ogei erralde izango dituzten beste lau; araxiago basurde itxurako napar-txerri beltza; an iru biatzeko ile gorria duan txerri itxusia; araxiago ia ile gabeko txerri lerdan da koipetzua...

Ta tratalari iaio asko aldamenen, gezurra barra-barra txuri nabarmena beltza dalakuan sartuko luteken majiña bat bai. Saltzailea ta erostailea maltzur ta argi beti. Batak abereak dituan gauz on guziak erakutzi naiean; besteak dituan da ez dituan akatz guziak nabarmendu naiean: emendik atximur, bestetik ikutu bat. Itz asko ez: txapela okertu, berriz zuzendu, irri-par bat, akuiluaren muturrean kokotza erantzi, ajolik ez ba'litzaioke bezela noizean bein txistu...

Orain ala da ERNANI'n da orain dala urte batzuek ere ala izango zan noski. Orduan egiten zituan betekadak "Katilu" k!!....

Ba'ziran amabiak ia, gau-erdi laizter, ta URNIETA bidean an zijoazten "Katilu" ta "erramuta" ko Mikel etxerantz: batzuetan lau oiñean, zatika biren gañean zutik edo erdi zutik beintzat...

- Ta nik bostetan beiak jetzi bear! -zion "Katilu" k.
- Beingoagatik Katalin'en jetziko dizkik, gizona!
- Kataliñek?! ... A, gizajoa, ez ago i aren atzaparretan!!
- Tia, "Katilu", gizonak gizon bear dik izan beti!
- Bai, bañan, emakumea emakumea ba'da?
- Ta, zer!

– Askoz ere okerrago dala!...

Ontan tximist-gurdi oietako bat igaro zan aldamenetik, orduan lenengotako bat, burni bide berrian.

– Aizak, "Katilu", tximist-gurdi oiek zerekin ibiltzen diran jakin al'dek?

– Nik? Ez dek erreza izango. Makiña bat tresna ta burni puzka ba'dizkitek, alajaiña!

– Urarekin ibiltzen omen dirala!

– Urarekin?! Tia, tia... ago ixilik motel!

– Baietz! Zeledonio apaiz jaunari entzun ziot gaur!

– I ta... urak orrenbeste indar ba'du?

– Etzekiat ba'da, zerbait izango dik tximista bezela orrenbeste gauz eramateko!

– Alajaiña, orduan uraren ordeaz ardo beltz-beltza, Sarasua'neko ardo napar ura jarriko ba'lioteke zer egingo ote luke!!

Erritar [Martin Ugalde]